

OINARRIAK

1. Xedea

Oinarrizko LHko ikasleek udalerraren eta eskualdearen hobekuntzan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzea da proiektu honen helburu orokorra. Helburua gazteak tokiko erronken eta arazoen inguruan sentsibilizatzea da, haien pertenezia-zentzua eta erantzukizun zibikoa indartzea, parte-hartzea eta inplikazio soziala landuz.

Proiektu hau Amorebieta-Etxanoko eta Ermuko udalek eta Durangoko Mankomunitateak Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean sustatutako Gaztedi Durangaldea programaren barruan kokatzen da.

2. Helburuak

Proiektuak bilatzen dituen helburu zehatzak hauek dira:

- Oinarrizko LHko ikasle gazteen parte-hartzea sustatzea eskualdearen hobekuntzan, lankidetzeta-espirtua eta gizarte-kohesioa sustatuz.
- Gazteak sentsibilizatzea tokiko erronkei eta arazoei buruz.
- Herritartasuna eta erantzukizun zibikoa indartzea.
- Gazteak trebatzea taldean lan egiteko, parte hartzeko eta gizartean inplikatzeko trebetasunetan.
- Gazteria ahalduntzea, eskualdean aldaketa positiboko eragile bihurtzeko.
- Sormena eta berrikuntza sustatzea Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasle gazteen artean, eskualdearen edo udalerraren erronkei irtenbide originalak proposatzeko eta garatzeko aukerak eskainiz.
- Gazteen artean kultura, etnia eta genero aniztasunarekiko errespetua sustatzea, gizarteratzea eta kulturen arteko elkarrizketa sustatuz.
- Gazteen artean espirtu ekintzailea sustatzea.

3. Hartzaileak

Proiektu honen hartzaileak eskualdean dauden Oinarrizko LHko hiru zentroetako ikasleak izango dira. Zehazki, honako hauek izango dira ikasle hartzaileak:

- Maristak Ikastetxeko Oinarrizko LHko 2. mailako ikasleak, Durango
- Ermua-Mallabiako Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko 2. mailako ikasleak.
- Durangoko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko 2. mailako ikasleak.

4. Proiektuaren faseak

Proiektua hiru fasetan banatuta dago:

- 1. Fasea: Talde-laneko prestakuntza, komunikazio eta enpatia trebetasunak:**
Lehen fase honen helburua parte hartzen duten gazteak proiektuan sartzeari izango da, komunikazioan beharrezkoak diren oinarrizko trebetasunak ematea eta lantaldeak osatzea. Horretarako, 2 orduko tailer bat egingo da gela bakoitzarekin. Bertan, proiektuaren sarrera eta azalpena egingo da, komunikazio-teknika eraginkorrak landuko dira eta interesetan eta trebetasunetan oinarritutako taldeak prestatzeko dinamikak egingo dira. Azkenik, parte-hartzaile bakoitzaren rola esleituko dira lantaldean.
- 2. Fasea: Proiektuen definizioa eta garapena:** Fase honetan, aurkeztu beharreko proiektuak definitu eta garatuko dira. Horretarako, gutxi gorabehera bi orduko prestakuntza-saio baten bidez, ideia-jasako saioak dinamizatuko dira, proiekturik egokienak aukeratu dira balorazio-irizpideen arabera, eta proiektu bakoitzaren plangintza xehatua egingo da, zereginak esleitzea eta talde parte-hartzaile bakoitzerako epeak ezartzea barne.
Parte hartzen duten taldeek aurkezpen formatuan entregatu beharko dute proiektua, gehienez 20 diapositibarekin. Proiektua aurkezteko azken eguna 2024ko azaroaren 29a izango da. Parte hartzen duten taldeek proiektua entregatu beharko dute, posta elektronikoz adierazitako helbidera bidaliz.
- 3. Fasea: Amaiera ekitaldia:** Hirugarren fasean, sariak banatzeko azken ekitaldia egingo da. Ekitaldi honetan, baloraziorik onena jaso duten 10 proiektuen aurkezpena emango da epaileen eta, oro har, herritarren aurrean azalduz, gehienez 10 minutuko aurkezpen baten bidez. Ekitaldi hau udal espazio batean egingo da, ikasgeletatik kanpo, 2024ko abenduan.

5. Proiektuen betebeharrak

Aurkeztutako ideiek edo proiektuek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Aurkeztutako proiektuak edo ideiak lantaldeetan aurkeztu beharko dira; gutxienez 3 eta gehienez 6 pertsonaz osatutako taldeetan.

6. Ideiak baloratzeko irizpideak

Epaimahaiak 0tik 10era bitarteko puntuazioarekin baloratuko du proiektu bakoitza, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

1. Eragin Positiboa edo Gizarte Onura: Zein neurritan da onuragarria ideia komunitatearentzat/udalerrarentzat/eskualdearentzat? Zer neurritan hobetzen da herritarren bizi-kalitatea?

2. Sormena eta Berrikuntza: Durangaldean ideia berria eta originala den hartuko da kontuan.

3. Inklusioa eta berdintasuna sustatzea eta aniztasuna sustatzea: Ideiak bermatzen al du hainbat gaitasun eta premia dituzten pertsonen proiektuaren onurak eskura izatea? Proposamenak kultura- eta gizarte-taldeen arteko trukea eta ulermena errazten al du? Proposamenak herritarren artean dauden desberdintasunak murrizteko balio du?

4. Herritarren parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea: Ideiak herritarren parte hartzea bultzatzen du? Proposamenak talde eta erakunde desberdinen arteko lankidetzaren eta talde-lanaren sustatzea du?

5. Kalitatea eta argitasuna: Koherentzia eta argitasun maila aurkezpenean

Aurreko irizpideetako bakoitza 0 eta 2 puntu artean baloratuko da.

7. Sariak eta amaierako ekitaldia

2024ko abenduan, amaiera ekitaldia eta sari-banaketa egingo dira.

Bertan 4 sari banatuko dira:

1. Saria: Taldeko gozatzeko uretako edo mendiko abentura jarduera.
2. Saria: Karting jarduera taldean gozatzeko.
3. Saria: Jarduera taldean gozatzeko Scape Room batean.

Azkenik, ekitaldian egindako aurkezpenik onenak 4. saria jaso ahal izango du: Abentura parke edo ohe elastikoen parke bateko jarduera.

Amorebieta-Etxanoko eta Ermuko udalek eta Durangaldeko Mankomunitateak banatuko dizkiete sariak onuradunei. Banaketa hori amaiera-ekitaldian egingo da.